Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

317

Urtarrilak 15, 2018

2 Irun atzo Irun Gaur
3 Berri laburrak
4-5 Mikel Alonso sukaldariari elkarrizketa
6 Bidegorri berriak Irunen
7 Udal merkatuari buruzko erreportajea
8 Kirolak: Jose Luis Riberari elkarrizketa
9 Kirolak: Aginagalde anaien kanpusa
10 Gabonak Caserren
11 Haurren leihoa
12 Gazteen lanak
13 Gazte boluntariotza
14 Gazte informazioa
15 Agenda

Arrakasta lortu du Mikel Alonso sukaldari irundarrak Mexikon

Argazkia: Estudio Gover

ola
SAGARDOTEGIA
Iñaki Bengoetxea

TXOTX BERRIA
IREKIERA FESTA
Urtarrilak 21
ZATOZ!

ROBERT JULIUS TORÍO MÚGICA

Argazkia: Amaia Larrea

Ameriketako Estatu Batuetan jaio zen, New York-en, 1937an. Irunen zendu da, 2018an. Aita Valladolidekoa zuen, eta ama, Aiako Harriko baserri batean jaio zen. Haren eskutik iritsi zen Irunera, 1954an. La Salle ikastetxean ikasi zuen, eta EEBBetara itzuli zen 1956an. Postari aritu zen bertan.

1972an Irunera itzuli zen, New York-eko Central Park-en istilu bat eduki eta labankada bat jaso ondoren. Irunen instalatuta, metalak biltzen eta saltzen ibili zen. Uniforme eta txano militarrak, botak, motxila eta bastoia zeramatzan beti. Javier San Martin *Shaf*ek bere ibilbidearen inguruko dokumentala egin zuen. Baita erakusketa iradokitzailea ere, 2013an, Irungo Oiasso Museoan. 80 urterekin hil da Robert Julius Torío Múgica, 2018ko urtarrilaren 8an. Endarlatsan bota dituzte bere errautsak, bere leku gogokoenetako bat baitzen.

Iturria: Agustin Morate.
Irun y sus gentes.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena
Unai Oiartzun
Ainara Berges

Euskara zuzentzilea:
Unai Oiartzun

Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal
Amaia Terrazas
Ion Otxoa

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L

ISSN:
1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943 04 20 52

Wegunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLITICA LINGUISTICA

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Harry Potter Irungo liburutegian jaun eta jabe

CBA Irungo Udal Liburutegiak sagaren 20. urteurrena ospatzeko erakusketa antolatu du

Irungo CBA Udal Liburutegiak Harry Potter pertsonaia literarioari ateak ireki dizkio. Abenduaren 26tik urtarrilaren 20ra bitartean, Harry Potter sagarekin loturiko materialak ikusgai egongo dira liburutegian. Zazpi liburu famatuez gain, mundu magikoarekin lorturiko liburuen edizio bereziak ikusi ahal izango dira bertan. Erakusketa honen bitartez, Harry Potterren lehenengo liburua kaleratu zenetik 20 urte betetzen direla ospatu nahi du CBAk.

Erakusketara hurbiltzen den edonork izango du magiaz beteriko erakusketa honetaz dohainik disfrutatzeko aukera. Astelehenetik ostiralera, goizeko 9:00etatik arratsaldeko 20:00etara egongo dira ateak zabalik. Asteburuetan ere bildumaz disfrutatzeko aukera egongo da: larunbatetan goizeko 9:00etatik eguerdiko 13:00ak arte.

Literatura eta liburuak dira erakusketa honetako protagonista nagusiak. Liburuen artean, Harry Potter-en abenturak biltzen dituzten zazpi liburuak aurkituko dituzte bisitariek. Horiez gain, mago gazte honek bizi dituen abenturen xehetasunak argitzen dituzten liburuen edizio bereziak daude. Ikusgai dauden liburu berezi horietako batzuk ingelesez soilik argitaratuak izan diren edizioak dira, ilustrazio dotoreen bidez jarraitzaileei mundu magikoaren sekretuak argituko dizkietenak.

Erakusketan zehar kokaturiko argazki erraldoiek bisitariak Hogwarts-eko gaztelura eta pelikuletan ageri diren beste hainbat bazterretara garraiatuko dituzte. Erakusketa osatzeko, protagonisten argazkiekin bilduma txiki bat osatu da, magiaz beteriko istorio honetan paper garrantzitsua jokatzen duten 20 pertsonaia esanguratsuenekin erakusketa biribiltzeko.

Argazki eta liburuez gain, betaurrekodun mutil mago honen jarraitzaileek sagarekin loturiko pare bat objektu ikusteko aukera ere izango dute. Horien artean, Hogwarts Magia eta Azti Eskolaren ezkutua daramaten liburuxka edo bandera. Gainera, Draco Malfoy gazteak pelikulan erabiltzen duen hagaxka magikoaren erreplika bat ikusgai dago.



Zabaltza plazako eraikin berrien itxura gertutik zainduko du Irungo Udalak

Aurrera doa garai batean Irungo postetxearen egoitza izandakoa eta aldameneko higiezina eraitsi eta ordezkatzeko proiektua. Hiriko gune adierazgarri honen kontserbazioa bermatzeko, xehetasun azterketaren hasierako onarpena sinatu du udalak. Bertan, eraikin berriek izango duten itxuraren inguruko detaileak azaltzen dira. Udalak arreta berezia ipini nahi du eraikin berrietan, Zabaltza plazaren ingurua ez desitxuratzeko. Integrazio egoki hori ahalbidetuko dute eraikinak osatuko dituzten elementu apaingarriek.

Lanak abiatu aurretik, Irungo Udalak kalitate eta irudi irizpideak ezarri nahi izan ditu, emaitzaren kalitate ona bermatzeko. Xehetasun azterketaren helburuak bi dira: Plan Nagusiaren arabera eraikin berriak izan beharreko bolumena zehaztea eta, bestetik, eraikin horien ezaugarrien berri ematea. “Leku historiko baten esentzia gordetzeko arreta berezia ipini behar da", adierazi du Jose Antonio Santano Irungo alkateak.

Zuberoa kaleko eraikina osatuko duten balkoiak, begiratokiak eta lehiateak kontu handiz diseinatuak izan direla azaltzen da dokumentuan. Gainera, Zabaltza plazako eraikinak eraikitzeko erabiliko diren materialak, arotzeriazko elementuak, apaingarriak eta pertsianak zeintzuk izango diren zehazten da, era berean. Irungo Udalak bere web gunean ipinitako infografiak erakusten du nolakoa izango den proiektu honen emaitza.

Zabaltza plazako 6. eta 7. zenbakiak eta Zuberoa kaleko 2. zenbakia izango dira eraitsi eta berreraikiko diren eraikinak. Iraganean Irungo postetxea izandako eraikina “Regiones Desvastadas” organismo frankistak eraiki zuen. 1950eko abuztuaren 12an, eraikuntza amaitu zenean, eraikina Correosen eskuetan gelditu zen, hiriko postetxearen egoitza izan zedin. 2007 urtean Correosek egoitza aldatu zuen eta eraikina hutsik gelditu zen.

Olaizola Immobiliaria agentzia

- Salmenta-Alokairuak
- Promozio berriak
- Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

MIKEL ALONSO, sukaldaria

Eguberriak Irunen pasa ditu Mikel Alonso sukaldariak (Biarritz, 1971), aspaldiko partez. Bi hamarkada daramatza Mexiko Hirian, azkena, Biko jatetxe famatuan, Bruno Oteizarekin batera. Mexikon, gastronomiaren podiumeko lehen tokietan dabil beti. Mundu mailan ere, berrogeita hamar onenen artean kokatzen dute zerrenda nagusiek.

Bikoren lehen etapa amaitu berri da abenduan. Ateak itxi ditu jatetxeak, eraikinean obrak egin behar dituztelako. Bide batez, kokapena aldatzeko baliatu dute jabeek. Lanean dabiltza orain, eta hori dela eta, Gabonetan Irunera etortzeko aprobetxatu du Alonsok. Emazte eta seme mexikarrek ere gustura zeharkatzen dute Ozeano Atlantikoa, tarteka. Café Irunen erantzun du elkarrizketa.

Zein oroitzapen piztu dizu Eguberriak Irunen pasa izanak?
Hogei urte neramatzan Gabonetan Irunen egon gabe. Tarteka etortzen naiz, baina udaran, normalean. Nire familian, Gabonak data kutunak izan dira beti, oroitzapenez eta sentimenduz beteak. Dagoeneko ohituta nago egun hauek kanpoan pasatzen, eta Mexikon ere Eguberri ederrak bizi izan ditut. Baina ezberdinak dira. Hemen lotura handiagoa dute neguko hotzarekin, tradizioarekin, gastronomiarekin etab.

Sukaldaritzak eraman zintuen Mexikora. Baina bokazio hori ez zitzaizun txikitatik sortu. Noiz agertu zen gastronomia zure bizitzan?
Esango nuke beti egon izan dela presente, amaren bularra hartzen nuenetik. Lanbideari dagokionez, nire akats baten ondorioa izan zen. Maite ditut akatsak, bide berriak irekitzen dituztelako. Ingeniaritza ikasten hasi nintzen. Garai hartan, bazirudien zientzietan abilak ginen guztiok egin behar genuena zela.

Bertan behera utzi nuen, eta gastronomiaren bideari heldu nion. Luis Irizarren eskolan ikasi nuen, eta bukatzera nindoanean, Irizarrek berak kontatu zidan eskaintza bat zegoela Mexikon. Animatzeko gomendatu zidan, interesgarria izango zela, nire ikuspegia zabalduko nuela etab. 1997ko irailean hartu nuen hegazkina, Hondarribiko Arraunlarin praktikak egin eta gero.

Sei hilabeteko egonaldia egitera joan zinen. Zergatik luzatu zenuen?
Modu logiko eta natural batean joan zen luzatzen. Lehen urteetan ikaragarri ikasi nuen, oso biziak izan ziren arlo pertsonalean, emozio aldetik. Heldu bilakatu nintzen ziztu bizian, erronka pertsonal askorekin. Lan talde bat gidatu behar izan nuen, adibidez, ia nire burua zuzentzeko gai ere ez nintzenean. Bertako sukaldariekin asko ikasi nuen, hango produktuez eta sukaldaritzaz.

Nola egokitu zinen munduko hiri handienetako batera?
Mexiko Hiriak besoak zabalik hartu ninduen. Atsegina da Mexikora iristea. Egia esan, oso azkar egokitu nintzen bertako bizitzara.

“Sariak zoragarriak dira, batez ere, inguruko jendearekin elkarbanatzen baldin badira”

Euskal Etxean hasi nintzen, gero Bruno Oteiza ezagutu nuen eta Juan Mari Arzak-ek Mexiko Hirian zuen Tezca jatetxean sartu ginen biak. Zortzi urte pasa genituen Arzak-ekin, eta asko ikasi genuen. Garai hartan ulertu nuen munduko handienak ere gizakiak direla, eta saiatuz eta huts eginez egin dutela aurrera.

Gastronomia modernoaren moda hasi berria zen Mexikon, eta gu, korronte horren buruan geunden, munduko handienarekin. Olatu horretan egotea egokitu zitzaigun. Oso-oso ederrak izan ziren urte haiek.

Bigarren hamarkada, Biko jatetxean eman duzu. Zein ideiarekin jarri zenuten martxan?
Arzak-ekin hainbeste urte eman ondoren, oso barneratuta genuen abangoardiako sukaldaritza. Gure karta prestatzen hasi ginenean, konturatu ginen gure maisuena zirudiela. Bestalde, garai hartan bazegoen etengabeko lehia bat abangoardiako eta tradiziozko gastronomiaren artean. Guk biak uztartzea erabaki genuen.

Fusio horretan dago Bikoren esentzia. Euskal gastronomiako platerak eska daitezke, alde batetik: bakailao tortila, piper beteak, arrain zopa, legatza salda berdearekin, txuleta brasan... Bestetik, guk gastronomia gatxupa deitu duguna dasta daiteke: identitateen fusioa da, modu naturalean sortua, bortxatu gabe, zintzotasunez.

Mexikoko eta Euskal Herriko gastronomia urrun samar daudela dirudi. Gertuagotik ezagututa, zer esango zenuke?
Elkar-truke asko egon dira historian zehar. Patataren, tomatearen eta piperraren kasua, batez ere, oso adierazgarria da. Ez dira Mexikokoak, esklusiboki, baina bai ingurukoak. Eta gaur egun, zer litzateke euskal sukaldaritza hiru produktu horiek gabe? Marmitakoa, adibidez: aspaldi, baratxuri zopa besterik ez zen, atunarekin.

Teknikei dagokionez ere, badira antzekotasunak. Gogoan dut, gaztetan, Azkaine aldera joaten ginela, eta zikiroa egiten genuela. Bada, haragia su motelean egiteko modu hori, Hego Amerikakoa da, Argentina aldekoa. Tradizioek sustraiak dituzte, baina malguak dira.

Zutik jateko ohitura ere badute mexikarrek, euskaldunok bezala.
Nire aita harrituta geratu zen, ikusterakoan, trajez eta dotore jantzitako jendeak zutik jaten zuela. Nik esan nion Euskal Herrian ere egiten dela, pintxoak jaten ditugunean, tabernetan, adibidez. Kultura askotan, eskuekin jatea ez da normala.

Identitateen fusio horrek arrakasta eduki du, sariekin eta aitortzekin. Nola hartu dituzue?
Zorionez, Arzak-ekin, errealitate hori ezagutu genuen. Gero, Bikorekin tokatu zaigunean, ez dugu burua galdu. Sariak zoragarriak dira, bultzada handia ematen dute, batez ere, inguruko jendearekin elkarbanatzen baldin badira.

Zalantza handiak edukitzen dira bizitzan, bereziki, aldez aurretik egin ez diren gauzekin ausartzen baldin bazara. Ibilbide horretan, halako sari bat jasotzen duzunean, mugarri bat ezartzen duzu, puntu horretatik abiatuta, aurrera egiten jarraitzeko.

Jatetxe onenen zerrenda nagusietan, gainera, lehen postuetan zaudete. Zein balio ematen diozue horri?

Zerrenden sukar moduko bat bizi dugu gaur egun, lehenago, liburuekin edo kongresuekin gertatu izan den bezala. Hortaz, zerrendetan egotea ondo dago, baina kokapen numeriko hutsalaz harago joan beharra dugu. Zerrendarik garrantzitsuena da zuk zure buruari jartzen diozuna. Eguneroko exijentzia eta lana.

Sukaldarien egozentrismoa indartu dezakete, era berean. Kritikoa zara horrekin.
Badago jendea pentsatzen duena beste guztiak bere aginduetara egoteko jaio direla. Nire ustez, zoriontasuna da eguzkia, erdigunea, eta haren inguruan bira egin behar du beste guztiak. Oreka da gakoa.

Mundu osoan zehar jatetxeak irekitzeko eskaintzak eduki dituzue. Zergatik ez dituzue onartu?
2018an hiru jatetxe edukiko ditugu Mexiko Hirian. Uste dut hirugarren hamarkada bide horretatik joango dela. Egia da eskaintzak jaso ditugula, sarien eta aitortzen harira, jende askori interesatzen zaiolako Biko jatetxea haien eraikinetan egotea.

Baina nik beti pentsatu izan dut, New York-en jatetxe bat irekitzeko, adibidez, bertako lan talde bat eduki beharra dagoela. Eta hori ez da egun batetik bestera lortzen.

Irakaskuntzari ere garrantzi handia ematen diozu.
Gastronomia ofizio bat da, eta alde horretatik, transmisioa, ezagutzak belaunaldi berriei helaraztea, ezinbestekoa da.

“Maite ditut akatsak, bide berriak irekitzen dituztelako”

Argazkia: Estudio Gover

Bidegorrien sarea handituko du Irunek

Aukera zabalak eskainiko dituzten konexioak egingo ditu udalak aurten

Irun hirian zehar bizikletan mugitzen direnek bidegorri tarte berriak baliatu ahal izango dituzte 2018an. Alde batetik, Behobia auzoa Osinbiribilekin lotuko duen pasabidea amaituko du udalak, urteko lehen hilabeteetan. Azken fasean daude oinezkoentzako ibilbidea eta bizikleta erraia eraikitzeko lanak. Bestalde, Anaka auzoan dagoen Aldabe mendia kaleko bidegorri proiektuaren erredakzioa enkargatu du udalak. Mugikortasuna arloak Antziola Proyectos y Obras S. L. enpresari enkargatu dio proiektuaren erredakzioa eta obra zuzendaritza. 10.708,50 euroko aurrekontua eta bi hilabeteko epea edukiko ditu lanak burutzeko.

Zubimuxuko eta Puianako biribilguneen arteko bidegorriaren obra lizitatzeko eta esleitzeko prozesuan dago. Bitartean, Irungo Udaleko Mugikortasuna arloak unea baliatu du lan horiekin lotura duen proiektu txikiago bat martxan jartzeko. Helburua da Puianako biribilgunera iritsiko den bidegorria Burniola kalekoarekin konektatzea. Horrela, bidegorriarekin lotuta gelditukо dira Hondarribia kalea, Soroxarta, Belaskoenea eta Katea-Landetxa. Horretarako, bizikleta erreia falta da Aldabe mendia kalean, Burniola eta Letxunborro hiribideak konektatzeko.

Aurrekontu parte hartzaileetako proposamena da

Cristina Laborda Mugikortasuna arloko ordezkariak nabarmendu du gazteen aurrekontu parte hartzaileetako proposamen bati erantzuten diotela Aldabe mendia kaleko lanek: "Aukera ezin hobea da Irungo eremu horretako bidegorrien sarea osatzeko. Belaskoenea auzoarekin lotu eta oso aukera interesgarriak sortzen dira oinezkoen eta bizikleten mugikortasunerako, eskualde osoan". Nabarmendu beharra dago, zentzu horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak proiektu bat duela Bidasoko Ospitalearen eta Mendelu auzoaren artean bidegorria egiteko.

"Aukera interesgarriak sortzen dira mugikortasunerako, eskualde osoan"

Cristina Laborda, Mugikortasuna arloko ordezkaria

Behobia eta Azken Portu lotuko dituen bidegorriari dagokionez, lanak amaitzear daude. 2017ko apirilean hasi zituzten obrak, 2.217.840 euroko aurrekontuarekin. 950 metroko ibilbidea da, oinezkoentzako pasabidearekin eta 2,25m-ko zabalera edukiko duen bidegorriarekin. Behobiako sarrerako haur parketik Ford Vertiz kontzesionariora doa. Bigarren fase batean, Artiako kanalaren gaineko zubiarekin lotuko dute ibilbide hori. Erredakzio fasean dago oraindik. Edonola ere, Osinbiribil eta Behobia lotzen dituen ibilbideak aukera handiak zabaltzen ditu, Bidasoaren beste aldean, Urruñako Pausu auzotik Hendaiako Kaneta portura doan bidea kontuan hartuta.

Udal Merkatua: postu txikien erronka handia

Gabonetako salerosketen ondoren, errealitate gordinera itzuli da Merca Irun

Produktu fresko, postu txiki eta bazterretan pilatzen diren kaxen artean, Irungo Udal Merkatuak, igande eta jaiegunetan izan ezik, egunero irekitzen ditu bere ateak. Postuek goizeko 8.30ean altxatzen dituzte haien pertsianak, beste egun batez bezeroen eskakizunak asetzeko prest.

Merkatuaren egunerokotasuna lasaia da, baina Gabonen moduko datek ohiko errutina apurtzen dute. Izan ere, Gabonetan edo data berezietan jende gehiago hurbiltzen da Irungo erdigunean kokaturiko merkatu honetara. Data bereziek produktu bereziak eskatzen dituzte eta jendea normalean baino diru gehiago gastatzeko prest egoten da.

Txaro Arribas da Merka Irun Udal Merkatuko presidentea. Egunero Bakailuak izeneko postuaren salmahaiaren atzean kokatzen da eta merkatuaren egunerokotasuna ondo baino hobeto ezagutzen du. Udal Merkatuko presidentearen ustez, Gabon hauetan, beste urteekin alderatuta, jende gehiago hurbildu da Udal Merkatura.

Erosleen igoera honek kontsumitzaileek Gabonetan produktu desberdinak bilatzen dituztela erakusten du. Data berezietan jendeak kalitatezkoak, desberdinak eta freskoak diren produktuak eraman nahi izaten ditu etxera. Hain zuzen ere, hori da, Txaro Arribas presidentearen ustez, merkatuaren indargunea: produktu berezituen eskaintza.

Gabonen ostean merkatua egun "arrunten" errutinan murgiltzen da berriro ere. Egunerokotasunaren itzulerarekin batera merkatua egunero aurrera ateratzeko arazoak berragertzen dira. Argi dago azken urte hauek ez direla Irungo Udal Merkatuaren onenak izan, dendariek arazo askori aurre egin behar izan diotelako, merkatuan haien postuak zabalik mantentzeko. "Faktore ugarik eragin dute egun Udal Merkatuak bizi duen egoera", adierazi du Txaro Arribas merkatuko presidenteak.

"Faktore ugarik eragin dute egun Udal Merkatuak duen egoera"

Txaro Arribas, Udal Merkatuko presidentea

"Merkatuaren itxiera ikusi nahi ez bada, ezinbestekoa da denon artean zerbait egitea"

Iñaki Pikabea, Pikabea harategiko dendaria

Hiriaren inguruan etengabe zabaltzen ari diren merkataritza gune zein supermerkatuek min handia egin diete komertzio txikiei. Azalera handiko saltoki horiek jendea erakartzen dute, eta betiko postu txikiak bazterrean uzten ditu, konturatu gabe. Saltoki horiek, gainera, haien produktuak prezio lehiakorretan eskaintzen dituzte eta postuei ezinezkoa zaie eskaintza horiei aurre egitea.

Azalera handiko saltokien ugaritzea ez da Udal Merkatuko postuei buruhausteak eragiten dizkien faktore bakarra. Gizartean gertaturiko ohitura aldaketak zerikusi handia dauka, baita ere. Urte asko ez direla, etxekoandreak ziren egunero merkatuko postu ezberdinetara hurbiltzen zirenak, bazkaria prestatzeko erosketa egitera. Egungo errealitatea guztiz bestelakoa da, ordea, jendeak gero eta denbora gutxiago inbertitu nahi duelako erosketa egiteko.

Jende gaztearen artean merkatura erosketak egitera joateko ohitura falta dela adierazi du Txaro Arribas Merkatuko presidenteak. Merkatuko bezero ohikoena jende heldua da, baina, denboraren joanarekin, erosle talde hori ere murriztuz doa. Bezero gehiago erakartzeko asmoz, merkatuko hainbat postuk web guneak ireki zituzten, postuetako produktuak etxetik erosteko aukera eskaintzeko. Ideia berritzaile horrek, ordea, harrera txikia izan du irundarren artean, momentuz.

Postuen itxiera

Ohitura aldaketak eta saltoki handien konpetentziak merkatuko postu askoren itxiera eragin dute. Zoritxarrez gero eta gehiago dira Merca Irunen "salgai" iragartzen duen kartel baten atzean pertsiana jaitsi behar izan duten saltzaileak. Erakusmahai horiek hutsik gelditzen dira denbora luzez, egoera ikusita, inor ez baita ausartzen merkatuan negozio berriak irekitzera.

Postuen itxierarekin, negozioak ez dira galtzen diren gauza bakarra. Izan ere, merkatuko postuek, produktuaren atzean, altxor berezi bat eskaintzen diete egunero haien bezeroei: konfiantza. Txaro Arribas merkatuko presidenteak azaldu du: "Merkatuan burutzen diren saleroskетetan konfiantza berezi bat sortzen da dendariaren eta eroslearen artean". Saltoki handietan, ordea, ezinezkoa da konfiantzazko harreman hori lortzea.

Etorkizun beltza

Azken urteetan sorturiko kezka eta oztopoei aurre egin behar die orain Merca Irunek. "Merkatuaren itxiera ikusi nahi ez bada, ezinbestekoa da denon artean zerbait egitea", azaldu du Iñaki Pikabea dendariak. Pikabeak bezala, beste dendari askok ere argi ikusten dute gauzak aldatzeko garaia iritsi dela. Hala ere, ez dute hain argi zeintzuk diren eman beharreko pausoak. Merkatariek egunaren amaieran negozioaren pertsiana lasaitasunez itxi nahi dute, hurrengo egunean Irungo Udal Merkatuak ateak irekiko dituela ziur edukita.

JOSE LUIS RIBERA, Real Unioneko entrenatzailea:

“Detaileek kalte handia eragiten digute”

Stadium Gal aldean ez da ohikoa izaten denboraldiaren erdian entrenatzailea aldatzea. 2016ko azaroaren amaieran, alabaina, Asier Santana kargutik kendu du Real Unionek. Emaitza kaskarrak eta taldeak hartutako norabide makurra izan ziren arrazoi nagusiak. Baina Eneko Romo kirol zuzendariak berak onartu zuen harmailetako presioak ere eragina izan zuela: “Giro ona eta ilusioa nahi ditugu Stadium Galen”.

Jose Luis Ribera 52 urteko azkoitiarrak hartu zuen Santana ordezkatzeko ardura. Realeko, Burgoseko eta Deportivoko jokalari ohia, entrenatzaile lanetan aritu da Antiguokon, Lagun Onak-en, Eibarren eta Sestao Riverren, besteak beste. Lotinarekin bigarren entrenatzaile izan zen Realean, Deporren eta Villarealen. Eta azken urteotan, analista lanetan aritu da Valladoliden eta Deportivon. Real Unionen, momentuz, ez du taldearen dinamika txarra apurtzea lortu. Hamabi partida daramatza talde txuribeltzak irabazi gabe.

Zein eragin izan du Eguberrietako etenak taldearentzat?
Jai egunak ondo etortzen dira beti. Jendea nekatuta iristen da, eta arnasa hartzea komeni da. Gainera, familiarekin egoteko egunak izaten dira, eta horrek buruari atsedena ematen laguntzen du. Jendea gogoz etorri da bueltan.

Bestalde, lehiarik gabeko aste bat edukitzea ondo etorri zaigu. Landu nahi genituen arloetan sakondu ahal izan dugu. Pena da ez dugula min hartutako jokalari guztiak berreskuratzea lortu.

Denak lehenbailehen osa daitezen nahi genuke, aukera gehiago edukitzeko. Bai neurketetan, baita entrenamenduetan ere.

Zer landu duzue?
Askotan, taldeak ondo ez daudenean, bi pauso eman behar dira atzera, oinarrizko gauzak lantzeko. Batzuetan jakintzat ematen direnak, baina ahaztu egiten direnak. Nolanahi ere, denbora laburrean gauza gehiegi aldatu nahi izatea ez da ona izaten.

Eguneroko lan ona ez da emaitzetan antzematen.
Ikusi nahi nituen zenbait gauza erakutsi ditu taldeak azken jardunaldietan. Baina beste batzuetan hobetu beharra dugu oraindik. Dena den, emaitza onekin hobeto lan egiten da beti.

Konfiantza galduta dabil taldea?
Nahitaezkoa da futbolean. Taldeari ikusten zaio konfiantza falta zaiola. Jasotzen duen lehen kolpeak min handia eragiten dio. Konfiantza berreskuratzeko modurik onena partidak irabaztea da.

Garaipen batek konponduko luke hori?
Sendabiderik onena garaipena izaten da, eta irabazteko beharra dugu, hori ezin da ukatu. Sailkapeneko egoeragatik, alde batetik. Baina batez ere, taldeak konfiantza berreskura dezan. Jokalariek haien burua indartsu senti dezaten.

Gol asko jaso ditu taldeak lehen itzuliaren amaieran. Horretan arreta berezia jarri al duzue?
Emaitza hobeak edukitzeko, gol gutxiago jasotzea garrantzitsua da, modu horretan, golak sartzeko beharra txikiagoa delako. Detaileek kalte handia eragiten digute. Futbolean akatsak egitea ezin da saihestu. Beraz, ahalegindu beharra dago akats horien eragina murrizten.

Eneko Eizmendi iritsi da neguko merkatuan. Beste jokalariren baten bila ari al zarete?
Merkatua arretaz aztertuko dugu, eta Real Unionentzat ona izan daitekeen aukeraren bat topatzen baldin badugu, aurrera egingo dugu. Baina ez gara arriskatuko, arinegi ibiltzeagatik. Taldea hobetuko duen zerbait nahi dugu.

Zaleen babesa sentitzen duzu?
Zaleen laguntza behar dugu, baina ezin diegu ezer eskatu. Lortu behar duguna da zaleak erakartzea, talde langile eta bizi bat ikusten dutelako. Irabazteko anbizioa erakusten duen taldea ikusten balin badu, jendea etorriko da, eta laguntza emango digu. Gure ardura da hori.

Mailari eustea baino gehiago eskatzen diote zaleek taldeari. Aurten ez a posible izango?
Real Unionek gorago egon behar du, baina pausoz-pauso joan beharra dago. Horretarako, garaipenak eta puntuak biltzen hasi behar dugu lehenbailehen.

EGUNEKO MENUA · DASTATZEKO MENUA · KARTA · PINTXOAK ETA ERRAZIOAK

Félix Manso
IBARLA

Meaka auzoa, 9 ~ 20305 IRUN
Tel.: 943 841 964

FELIX MANSO IBARLA JATETXEA

info@felixmanso.com
www.felixmanso.com

Aginagalde kanpusean izena eman daiteke

Ekainaren 22tik 29ra egingo dute, Hondarribian, Irunen eta Hendaian

Eskubaloi teknifikazio kanpusa antolatu dute Gurutz eta Julen Aginagalde anaiek. www.campusaginagalde.com web gunean izena eman daiteke dagoeneko. Azkar ibiltzea komeni da, 70 neska-mutilen muga gainditzerakoan izen-ematea isteko asmoa dutelako. 2001 eta 2010 urteen artean jaiotako haurrek izena-eman dezakete. Kanpusa ekainaren 22tik 29ra izango da, Txingudi Badian, Hondarribian, Irunen eta Hendaian. Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesa jaso du Aginagalde kanpusak.

Hamahiru urte daramatzate Aginagalde anaiek elkarrekin jokatu gabe, Gurutzek 2005ean Bidasoa utzi zuenetik. Horregatik, ilusioz aritu dira anaiak, kanpusa antolatzeko lanean. Gurutz Aginagaldek baieztatu du aspaldi darabiltela ideia buruan: "Gure ilusioa da, eskubaloian hainbeste urte eman ondoren, ikasi duguna haurrei transmititu ahal izatea. Ez jokoari dagokionez bakarrik, kirolari lotutako balioak ere helarazi nahi ditugu". 40 urterekin, Ciudad de Logroñon jokatzen du, gaur egun, Gurutz Aginagaldek. Julen Aginagaldek 35 urte ditu, eta Poloniako Kielcen ari da. Urtarrilean, Europako Txapelketan parte hartzen ari da Espainiako selekzioarekin.

Gaur egun Frantziako Billère taldean dabilen Aitor Etxaburuk eta Maria Azkue Zarautz K.E.ko emakumezkoen taldeko entrenatzaileak zuzenduko dituzte lan saioak. Aginagalde anaiez gainera, Jon Azkue eta Kauldi Odriozola Bidasoako jokalariek ere parte hartuko dute lan saioetan. Gainera, luxuzko bisitak jasoko dituzte haurrek: Montse Puche Bera Bera emakumezkoen taldeko entrenatzailea, Gonzalo Perez de Vargas F.C. Barcelonako atezaina edo Javier Álvarez Mata eta Jon Bustamante nazioarteko epaileak, besteak beste. "Bisitak erakargarriak izango dira. Haurrentzat beti izaten da atsegina haien erreferenteekin entrenatu ahal izatea", adierazi du Julen Aginagaldek.



Eskubaloia baino gehiago

Eskubaloiaren alde tekniko-taktikoez gainera, elikadura eta kirol psikologia landuko dituzte, besteak beste. "Lesioei nola aurre egin ikusiko dugu, adibidez", azaldu du Julen Aginagaldek. Hala ere, eskubaloia baino gehiago eskainiko du kanpusak. Juan Sebastian Elkano Hondarribiko aterpetxean hartuko dute ostatu, elkarbizitza lantzeko. Eta eguraldia lagun, abentura eta ur-kirolak egingo dituzte. "Txingudi leku egokia da halako kanpus bat antolatzeko", aipatu du Gurutz Aginagaldek. Zehaztu du, dena den, haurrak dibertitzeaz gainera, haien hezkuntzan eta eboluzio pertsonalean sakontzea dutela helburu.

Eguberri oparoa eduki dute Caserren

Real Unioneko jokalarien bisita jaso dute egoiliarrek, besteak beste

Egitarau zabala eduki dute, Caser Anaka eta Caser Betharram adinekoen egoitzetan, Eguberrien harira. Santo Tomas jaiaren ospakizunarekin ekin diote, abenduaren 21ean. Olentzeroren eta Erregeen bisita eduki dute, bi egoitzetan. Bestalde, Donostiako Gipuzkoa plazan jarri ohi duten Jaiotza ikusteko irteerak egin dituzte egoiliarrek. Musika ere eduki dute egoitzetan, Betharramgo abesbatzaren eta Nagusilan elkarteko emakumeen kontzertuekin. Postal eta apain tailer ezberdinak, bingoa eta jolasak, eta mezak ere eduki dituzte.

Caser Anaka egoitzan bisita berezia eduki dute, iaz bezala. Real Union futbol elkarteko lehen taldea egon da bertan. Egoiliarrekin hitz egiteko eta argazkiak ateratzeko tartea hartu dute jokalariek eta talde teknikoko eta zuzendaritzako kideek. Oroigarriak banatu dizkiete, gainera, eta lunch batekin borobildu dute goiza. Oso gustura ibili dira egoiliarrak, eta dagoeneko datorren urteko bisitaren zain daude.

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780
CASER ANAKA

caser residencial
GURE AITONA-AMONEN ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak eta aldi baterakoak
Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169
CASER BETHARRAM

Erain txiki HH



ANTXETA
IRRATIA
90.5 / 89.7 FM

Anaka kalea, 11
IRUN
943.61.54.57

TABISA
TANATORIO DEL BIDASOA

San Pedro kalea, 49
HONDARRIBIA
943.64.54.57

BETIDANIK KONFIANTZA ETA ARDURAREKIN

Euskaraz, Irunen barrena

Eskuko behatzak bost dira

Eskuko behatzak bost dira:

Txikiak: arrautza erosi zon.
Bigarrenak: zartanian ipiñi zon.
Erdikoak: prejitu zon.
Laugarrenak: pixka bat jan zon.
Lodiyak: dana jan zon.

Jose Luis Maria Eceiza Arana, 6 urteko haurrari jasoa (1959-XI-17). (El Bidasoa, 1960-II-6)

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga
Euskaraz, Irunen barrena

San Vicente de Paul LH3

Irun, 2016ko abenduaren 8a

Eguneroko maitea:
Asko gustatu zait gaurko eguna. Oso ondo pasa dut! Ondo egin dut lo, atzo goiz oheratu nintzen eta. Gaur goiz esnatu naiz eta familiarekin atera naiz kalera, nire lehengusina txikia ikusi dut. Besoetan hartu dut. Hain polita da! Ondoren nire anaiarekin eta nire lehengusinarekin saskibaloian jolastu dut. Primeran pasa dugu! Gainera, une horretan Irenerekin topatu naiz eta jolasean aritu gara. A zer nolako algarak!
Jatetxe batean bazkaldu dut. Dena oso ona zegoen, errepikatzeko modukoa. Bazkalostean etxera buelatu gara eta gabonetako apaingarriak jarri ditugu: zuhaitza eta jaiotza. Oso dibertigarria izan da baina sekretu bat esango dizut, nire ustez apaingarri gehiegi jarri ditugu. Polit-polita geratu da eta oso distiratsua.
Bihar gehiago kontatuko dizut!

Saioa

CENTRO KINEESIS
- METODOA: K-STRETCH ®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT
www.kineesis.net www.k-stretch.com
Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640

Gazte Informazio bulegoak nobedadeekin ekingo dio 2018 urteari

Berritasunekin heldu dio Irungo Gazte Informazioak 2018 urteari. Sortu berria den Irungo Gazte Boluntariotza zerbitzua da hasi berri den urte honetako nobedade nagusia, baina ez bakarra. Irungo Gazteen Nazioarteko Mugikortasunerako zerbitzuak jardunaldi berriak antolatuko ditu urte honetan zehar.

Gazte Boluntariotza Gazte Informazio bulegoak martxan jarri duen azken zerbitzua da. Aholkularitza zerbitzu honen bitartez, izenak berak adierazten duen bezala, boluntariotzaren inguruko informazioa zabaldu nahi zaie herritarrei, bereziki biztanleria gazteari. Eva Sanchez zerbitzuko arduradunak azaldu du ezjakintasun handia dagoela gizartean, boluntariotzaren inguruan. Hutsune hori asetzeko helburuarekin sortu zen 2017 urtearen amaieran zerbitzu hau.

Era askotariko boluntariotzak burutzeko aukerak eskaintzen ditu zerbitzu honek: adineko pertsonekin, kulturartekotasunaren eta migrazioaren arloan, adin txikikoekin, aniztasun funtzionala duten pertsonekin, gaixotasunen arloan, bazterkeria egoeran (edo arriskuan) dauden pertsonekin, garapen lankidetzan, babes zibilean eta larrialdietan.

Bistaratze programaren bitartez boluntariotza hiriko gazteengana hurbildu nahi dute. Horretarako, ikasketa zentroetara hurbiltzen dira informazioa emateko eta joan den urteko abenduaren 2an boluntariotza azoka bat antolatu zuten, Boluntariotzaren Nazioarteko Egunarekin batera haien lana ezagutzera emateko.

Gazte Boluntariotzak hiru hilabete bakarrik daramatza martxan. Hala ere, Eva Sanchez zerbitzuko arduradunak adierazi du kontsulta asko burutu direla lehen hilabete hauetan. Nabari da kalean argitu gabe dauden boluntariotzaren inguruko zalantza asko daudela, eta zerbitzu honen sorrera guztiz beharrezkoa zela Irungo gazteentzat.

Mugikortasunari buruzko jardunaldia

Irungo Gazteen Nazioarteko Mugikortasun zerbitzuak denbora gehiago darama martxan, baina urte berriari ekiteko jardunaldi bat prestatu dute. Jardunaldiari "Lokaletik check out: mugitu zaitez!" izena ipini diote eta nazioarteko mugikortasunerako gazteen esperientzien inguruko jardunaldi bat burutuko dute.

Mugikortasunaren inguruko jardunaldi hori Amaia Kultur Zentroan burutuko da urtarrilaren 18an. Ekintzak eguerdiko 12:00etan hasiko eta 14:00etan amaituko dira. Ekitaldi hau 13-30 urte bitarteko gazteei zuzendurik dago bereziki. Ekitaldi honen bitartez sail honek aurrera eramaten duen zerbitzua aurkeztuko zaie gazteei honako hiru programekin batera: Gazteen elkartrukea, Europar Boluntariotza Zerbitzua eta Eusko Jaurlaritzak antolaturiko Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa.

Oihane Amoedo Gazteen Nazioarteko Mugikortasun zerbitzuko arduradunak jakinarazi du urtarrilaren 18ko ekitaldia "berezia" izango dela. Perfomance edo antzerki moduan dinamizatuko den ekitaldia izango da. Ekitaldian zehar azalduko diren programetan parte hartu duten gazteek haien bizipenak eta esperientziak kontatuko dituzte.

Ekitaldi horrez gainera, Gazteen Nazioarteko Mugikortasun zerbitzuak proiektu gehiago dauzka 2018 urteari begira. Gazteen Trukeak eta Europako Boluntariotza Zerbitzua koordinatzen jarraituko dute, orain arte egin duten moduan. Gazteen elkartrukatze programak udara begira antolatzen dituzte batez ere.

Ateak zabalik

Gazte Boluntariotzak zein Gazteen Nazioarteko Mugikortasun zerbitzuak Carlos Blanco Aguinaga Udal Liburutegian eskaintzen dituzte haien zerbitzuak. Bulegoa 8. aretoan kokaturik dute, Gazte Liburutegiaren barnean. Gazte Boluntariotzaren ordutegia honakoa da: astelehenetan eta asteazkenetan 16:00tatik 20:00etara eta ostiraletan 10:00etatik 14:00era. Gazteen Nazioarteko Mugikortasun bulegoarena beste hau da: astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan 17:00tatik 19:30era eta astearte eta ostegunetan 11:00etatik 13:30era. Hala ere, emailez eta telefonoz kontsultak egiteko aukera ere eskaintzen dute, gazteen zalantzak erantzuteko prest.

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Web gunean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

Zure etorkizuna aukeratzeko behar duzun informazio guztia

UPV/EHU 18/19
. Graduko ikasketak
. Unibertsitaterako sarbidea
. Tasak eta bekak
. Ostatua eta garraioa
. Kirol eta kultur ekintzak
. Hizkuntzak
. Mugikortasun programak
. Graduondoko ikasketak
. Praktika eta enplegua
. Eta gai gehiago...

2018-2019 ikasturterako Unibertsitate Orientazio Azokak egiteko datak eta tokiak:

Ordutegia: 9:00etatik 14:00etara.

. Gipuzkoako campusa
Ignacio Mª Barriola Zentroa (gelategia) - Elhuyar plaza, 1 (Donostia) Urtarrilak 27 (larunbata)

. Arabako campusa
Farmazia Fakultatea - (Gasteiz) Otsailak 3

. Bizkaiko campusa
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea - Agirre Lehendakariaren etorbidea, 83 (Bilbo) Otsailak 10

Eman ezazu izena 2018 otsailaren 19tik 25era

Informazio guztia:
www.ehu.eus/iaz

UPV EHU

AUSARTU eta ONTZIRA ZAITEZ!

Garapenerako ekintzak hegoaldeko herrialdeetan izaten dira, Amerika, Asia eta Afrikan hain zuzen ere, esperientzia hiru hilabetez, uztailetik urrira arte izango da, eta parte hartu nahi baduzu:

Bete beharreko baldintzak:
1. Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri bateko erroldan inskribatuta egotea

2. 1988 eta 1996 artean jaio izana, bi urte horiek barne

3. Jarduera egingo den herrialdean erabiltzen den nazioarteko hizkuntza menderatzea

Izena ematea: otsailaren 19ra arte

webgunea:
www.gazteaukera.euskadi.eus/informazioa/egutegia-euskadiko-gazteak-lankidetzan-2018-programarena//r58-6525/eu/

Gazteartean Expo

Jessica Sweet Dream Martín ilustratzaile irundarraren erakusketa. Ilustrazioa eta arropa elkar lotzen ditu artearen bitartez. Buruarekin egindako ilustrazioa

Noiz: urtarrilak 13 - otsailak 10

Ordutegia:
17:00-20:00 (asteartetik ostegunera)
17:00-21:00 (ostiral eta larunbatetan)
Lekua: Martindozenea Gaztelekua

Tailerra: Kamisetak Jessicaren diseinuekin

Eguna: urtarrilak 18

Ordua: 18:00 - 20:00

Lekua: Martindozenea Gaztelekuan

Prezioa: Doan

Gazteen Enplegurako Ekintza Programa 2017 "GAZTEBILAN"

COMMUNITY MANAGER IKASTAROA
Profil profesional hau 30 urtetik beherako gazteei zuzendua dago, Batxilergo titulu edo baliokideekin, prestakuntza ikastaroak komunikazio edo marketing arloetan edo unibertsitate-tituluak dituzten gazteentzat, batez ere arlo humanistiko edo sozialean, frantsesa eta/edo ingelesa ezagutza ziurtatzea eta lan munduan sartzeko zailtasunak dituztenentzat. Online komunitatearen eraikuntzan, kudeaketan eta administrazioan profesional bezala heziko zara

Prestakuntza-beka eta praktikak.

Iraupena: urtarrila-apirila/2018

Lekua: Irungo La Salle (Irun)

NAZIOARTEKO MERKATARITZA
Profil profesional hau 30 urtetik beherako gazteei zuzendua dago, Batxilergo titulu edo baliokideekin, prestakuntza ikastaroak administrazio, merkaturatze edo salmenta arloetan edo unibertsitate-tituluak dituzten gazteentzat, erdi mailako ingelesa ziurtatzea eta lan munduan satzeko zailtasunak dituztenentzat. 3. mailako Profesionaltasun Ziurtagiria lortuko duzu

Prestakuntza-beka eta praktikak.

Iraupena: urtarrila-apirila/2018

Lekua: Garraio eta Merkataritza Institutua (ITC) - Irun

Informazio gehiago:
www.elespazio.com - 943 633 160

Urtarrilak

17

"PRESTATU ZURE CURRICULUMA ETA AURKEZPEN-GUTUNA"

Zer:
Ezagutu nahi al dituzu curriculuma eta aurkezpen-gutunak egiteko eredu guztiak? Tailer honetan ikasiko duzu nola hobetu tresna horiek eta eskaintza bakoitzari egokitzen.

.**Ordua:**
9:00etatik - 12:00etara

Lekua:
El Espazion, Anaka

Izena emateko:
943633160
elespazio@bidasoa-activa.com

Prezioa:
Doan

17

"AMETS EGITEKO IPUINAK"

Zer:
Kontu kontari haurrentzat

Ordua:
16:30etan.

Non: CBA Udal Liburutegian

San Juan plaza,
-1 solairua

Prezioa: Doan

Informazio gehiago:
www.irun.org

19

Kontzertua: "PADDAM"

Non:
Oiasso Erromatar Museoa
Eskoleta, 1

Ordutegia:
19:30etatik 21:00etara

Telefonoa:
943 63 93 53

Prezioa:
Doan

25

"Welcome" filma

Sinopsia:
Bilalek, Kurdistandik datorren 17 urteko gazteak, Ekialde Hurbila eta Europa zeharkatu ditu Ingalaterrara migratu berri duen neska-lagunarekin elkartzeko.

Ordua:
19:30etan

Non:
Kabigorri Bidasoaldeko Ateneoa
Sarjia, 1, atzea

Prezioa:
Doan

Urtarrilaren 27ra arte

"ONDARE BEGIRADAK" ERAKUSTALDIA

Ordutegia:
- Astelehenetan itxita
- Astearte, asteazken eta ostegunetan: 10:00etatik 14:00etara
- Ostiral eta larunbatetan: 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara
- Igandeetan: 10:00etatik 14:00etara

Non:
Oiasso Erromatar Museoan
Eskoleta, 1

Urtarrilaren 28ra arte

MARGO ERAKUSKETA: "NEIHA AHMAD"

Ordutegia:
Astelehenetik larunbatera: 18:00-21:00 / Igande eta jai egunak: 11:30-13:30

Non:
Laboral Kutxa
Kolon pasalekua, 13

Prezioa: Doan

bertako

igogailuak | ascensores

igogailuen mantentzen-lanak

24 orduko
benetako zerbitzua

24 365 7

Pieza guztiak barne
100 eurotik aurrera

Euskarazko
zerbitzu profesionala

EMERGENTZIA-TELEFONOA DOAN
LED ARGIEN ITZALTZE AUTOMATIKOA KABINAN
IRAUPEN-KONPROMISO GABE

ESKATU AURREKONTUA

www.bertako.eus
info@bertako.eus
691 64 79 65